



### Baztan, paisaia eta etnografia

Iriarte Zelaieta, Pello

Baztan: Baztango Udala, 2016, 300 orr.

ISBN: 978-84-608-7025-8

Aurkezten dugun lan hau duela hiru urte hasi zen mamitzen. Elizondoko Puriosenea etxean –edo «Mairuen etxean»– dagoen Jorge Oteiza Museo Etnografikoko bildumaren katalogazioa, ibarreko ingurugiro eta testuinguru ekologikoarekin lotzea erabaki zuen orduan Baztango Udalak. Era berean, udalerriko ordezkariak beharrezkoa ikusi zuten erakusketan zein eskualde osoan barriaturik dagoen ondare horren elementu

guztien euskarazko izenak jasotzea. Izan ere, gaur egun objektu eta lanabes horietariko gehienak ez dira jada erabiltzen, eta horrek jatorrizko izenaren galera ekar lezake. Zeregin horiek aurrera eramatearen ardura Pello Iriarte Zelaietak jaso zuen, eta aurten kalera atera den argitalpen hau iruritarrek zintzoki burututako lanaren fruitua da.

Hasierako aurkezpena eta amaieran eskerrak emateko erabili dituen atalak kenduta, egileak funtsezko bost kapitulutan egituratu du bere ikerketa. Ezer baino lehen, Baztango geografia eta kokapen estrategikoa azaltzen dira, bai eta ibarrean dauden natura-ondarearen ezaugarri nagusiak ere (klimatologia, ibai eta errekek, zuhaitz eta landareak, animaliak, eta abar). Segituan, baztandarrek historiaren aro ezberdinetan ekosistemarekiko izandako harremana eta arlo horretan mantendu duten oreka aztertzen da. Horretarako basogintzan, herri-lurretan, landa edota baratzetan, harrobi eta meatzaritzaren arloan gizakiak garatu dituen lanak aztertzen dira hurrenez hurren. Atal horri bukaera emateko, urtaro bakoitzak paisaian agertzen dituen aldarte ezberdinen eta egutegiaren arabera baserrietan garatzen diren lan garrantzitsuen deskribapena egiten da. Hirugarren kapituluan, antolamendu eta egitura administratiboak haraneko bizimoduan izan duen eraginari erreparatzen zaio. Zentzu horretan, bi dira azpimarratu beharreko alderdiak; batetik, eskualdea Iberiar penintsulak eta Europak bat egiten duten gunean egoteak izan dituen ondorioak, eta bestetik, haranaren funtzionamendu publikoa kudeatzeko antzinean eraturiko instituzioek egunerokotasunean sortu dituzten dinamikak.

Behin ingurumenak ezartzen dituen baldintzak eta bertako antolaketa publikoaren eragina ikusi ondoren, hurrengo ataletan ibarreko eraikinetan aurkitzen diren berezko elementu eta eredu etnografikoen azalpenak hartzen du ardatz nagusia. Lehenik eta behin, hirigintza eta arkitektura tradizionala lantzen dira, unitate familiarraren etxebizitzak betetzen duen paperean arreta berezia jarriz. Jarraian, lanbide eta betekizun zehatz batzuk gauzatzeko beharrezkoak ziren eraikinen deskribapena dator. Pertsonak bizitoki bezala erabiltzen zuten eraikuntzari dagokionez, mendez mende honek izan duen garapena azaltzen da. Halaber, etxeko nagusien maila eta ahalmen ekonomikoaren arabera, etxebizitzaren tipologia oso ezberdinak aurki ditzakegu, eta haietariko bakoitzari erreparatzen zaio. Zentzu horretan, Ameriketara edota Madrilgo gortera joandako baztandarrek utzi zuten aztarnak aparteko tarte hartzen du. Esan

dugunez, beste puntu batean lanerako eta lehengaien ustiaketarako erabiltzen ziren eraikinak aztertzen dira (errotak, dolareak, gaztaindegiak, karobiak, lixibategiak, burdinolak...). Gaur egun, haietariko batzuk berreskuratu egin dira helburu kultural eta turistiko bat betetzeko asmoz. Liburuaren azken kapitulua sinesmenen eta folkloreaken esparruari eskainia dago. Atal hori aurrekoak bezain sakona ez bada ere, ibarrean aisialdiarekin erlazionaturik dagoen mugimenduaren ikuspegi orokor bat ematen da. Lanak ondare kultural ez-materialari eskaini dion tarte horretan haranean nagusi diren bestak, ospakizunak, kirolak eta jokoak azaltzen dira.

Oro har, liburuak Baztango ondare etnografikoaren goitik beherako azterketa hurbi-la egiten du. Gainera, irakurleak gai zehatz bati buruzko informazio gehiago izan nahiko balu, egileak horretarako atal bakoitzean espresuki aipatzen duen bibliografiara jo lezake. Azpimarratzekoa ere bada azterturiko elementuen euskal izenak jasotzeko egin den ahalegina, zeinean Iriartek gertuko adituen laguntza izan baitu. Horrekin batera, liburuak duen beste bertute handi bat bere irudien ikusgarritasunean datza; izan ere, landu diren gai guztiak hagitz ongi trataturiko argazkiekin apaindurik agertzen dira, emaitza bezala Baztango material eta elementu etnografikoen argazki-album eder bat lortu delarik.

Ricardo Gurbindo Gil